

“EROSI ZARAUTZEN BONUAK 2020” PROGRAMAREN ARAUDIA

1. "Erosi Zarautzen bonuak 2020" programa Murkil Zarauzko merkatarien elkarteak kudeatzen du, Bulego Teknikoaren laguntzarekin eta Zarauzko Udalaren finantzaketarekin eta ikuskapenarekin.
2. Zarautzen establezimenduak dituzten merkataritza eta zerbitzu enpresentzat da programa hau (ostalaritza eta antzekoak ez dira hemen sartuko), baldin eta Alarma Estatuaren 463/2020 Errege Dekretua indarrean sartzearen ondorioz, 2020ko martxoaren 16tik maiatzaren 3ra jarduera geldituta izan badute, edo aurreko urteko epe berdinarekin alderatuta, salmentak %40 baino gehiago murriztu badira.
3. Programa bi zatitan banatu da: lehenengoa, ekainetik uztaile bitartean egin zena, eta, bigarrena, irailetik urrira egingo dena.
4. 4.500 bonu banatuko ditugu bigarren zati honetan (edo baten bat gehiago, kanpainari atxikitako gastuen arabera)
5. Enpresa bakoitzak izango duen bonu kopurua kanpainan parte hartuko duten enpresa kopuruak baldintzatuko du. Horrela, bonu kopurua zati enpresa kopurua egingo da, enpresa guztiek bonu kopuru bera izan dezaten; modu honetara, ekitatea lortuko da banaketan, eta, aldi berean, beharrezkoak ez diren ilarak eta pertsona pilaketak saihestuko dira.
6. Saltoki bat baino gehiago dituzten enpresen kasuan, gehienez ere 2 establezimenduk eskuratu ahal izango dituzte bonu horiek, baldin eta Ogasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) bakoitzak berea ordaintzen badu.
7. Bonuek 30 euroko balioa izango dute; horietatik 10 euro Zarauzko Udalak ordainduko ditu, eta gainerako 20 euroak bezeroak.
8. Programari atxikitzeko epea irailaren 7tik 13ra bitartean izango da.
9. Merkatariek, programara atxikitu ahal izateko, kanpainarako sortutako formularioa bete beharko dute, formulario hori online bidez bete beharko da. Kanpainara atxikitzeko dokumentua Merkataritzako Bulego Teknikoan (Salegi kalea 14) ere sina daiteke, edozein zalantza argitzeko 943005100 (2303 luzapena) deitu dezakezue.
10. Kanpainaren bigarren zatiak epe zehatza izango du bezeroek "Erosi Zarautzen Bonuak 2020" erabili izan ditzaten, eta alde aurretik jakinaraziko da epe horren iraupena.
11. Kanpainaren bigarren zati honetarako, enpresa parte hartzaileei bonuak nola jaso behar dituzten jakinaraziko zaie.
12. Bigarrenengo aldirako, ez dira onartuko dataz kanpo egindako salmenta hobaridunak.
13. Enpresa parte-hartzaileek edukiko dituzte bonuak bezeroen eskura.
14. Parte hartzen duten enpresek ezin izango dituzte bonuak gorde, ezta bezeroen batentzat jaso ere.
15. Kontsumitzaileak adinez nagusia izan beharko du

16. Enpresak bonu guztiak erabili ondoren, Merkataritzako Bulego Teknikora eraman beharko ditu "Erosi Zarautzen bonuak 2020" jatorrizko txartelak, salmenta-txartel bakoitzaren kopiarekin grapatuta.
17. Faktura edo salmenta-txartelean argi eta garbi ikusi beharko da salerosketa-eragiketaren data.
18. Bigarren aldiaren erabilitako bonuak 2020ko urriaren 31 baino lehen entregatu beharko dira, bere ordainketarako.
19. Txeke izendunaren bidez ordainduko da, enpresaren izenean.
20. Enpresa parte-hartzaileak kanpainaren ezaugarrien berri eman beharko die kontsumitzaileei.
21. Kartela edo beste sustapen-elementuren bat egongo balitz, erakusleihoan edo erraz ikus daitekeen lekuren batean (hala nola, salmahaian), jarri beharko duke edo hedapen egokia eman.
22. Saltokiak gehienez ere 4 bonu onartu ahal izango ditu salmenta tiket eta kontsumitzaile bakoitzeko, eta salmentak 30 eurotik gorakoa izan beharko du. Bonu bat baino gehiago erabiltzeko honako hau bete behar da:
 - 30 € eta 70 € arteko erosketak: Gehienez, Bonu 1
 - 70,01 € eta 120 € arteko erosketak: Gehienez, 2 bonu
 - 120,01 € eta 180 € arteko erosketak: Gehienez, 3 bonu
 - 180,01 €-tik gorako erosketak: Gehienez, 4 bonu
23. Enpresak eskatutako informazio eta dokumentazio guztia eman beharko die Zarauzko Udalari eta Merkataritzako Bulego Teknikoari, kanpainaren berezko baldintzak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko.
24. Bonuak kobratzean enpresak inkesta bat bete beharko du
25. Atxikitze-agiriaren sinatzaileak baimena ematen die Zarauzko Udalari, Murkili eta Merkataritzako Bulego Teknikoari, "Erosi Zarautzen Bonuak 2020" programan parte hartzeko emandako datuak erabil ditzaten, programa hori gauzatzeko eta enpresarentzat garrantzitsua den beste edozein informazio jakinarazteko (laguntzak, kanpainak, formakuntza...).
26. Atxikipen-agiriaren sinatzaileak adierazten du emandako datu guztiak egiazkoak direla. Beraz, saltokiak emandako datuak errealitatearekin bat ez badatoz, Zarauzko Udalak beretzat gordetzen du egokitzen dituen jarduerak egiteko eskubidea, baita saltokiari kanpainan baja ematekoa ere.